



## LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako  
Idazkaritza Nagusia  
*Europako Gaietarako Zuzendaritza*

## PRESIDENCIA

Secretaría General de  
Acción Exterior  
*Dirección de Asuntos Europeos*

## Oharra BREXITA NEGOZIATZEKO 1. ERRONDAZ

**Noiz:** 2017ko ekainaren 19tik 23ra arteko astean

### EMAITZA NAGUSIAK

Lehen saioa egutegia, prozesuaren antolaketako zehaztasunak eta negoziatorako lehentasunak adosteko izan zen.

2017-04-29an Europar Kontseiluak erabakitako Orientazioetan eta 2017-05-22an negoziatzeko onartutako Gidalerroetan defendatutakoaren ildotik, negoziazio prozesua fase bitan egingo da: lehena gai premiazkoenak eta ziurgabetasun handiena sortu eta epe laburrean sortuko dutenak ebazten saiatuko da, eta bigarrenan etorkizunean Erresuma Batuaren (aurrerantzean E.Batua) eta Europar Batasunaren arteko harremanak jorratuko dira.

Prozesua hilean behin astebeteko negoziazioaldia eginez antolatuko da. Bitartean, ordezkariak proposamen zehatzak lantzeko eta iritzia trukatzeko erabiliko dute denbora.

Lehen faserako hiru talde sortu dira: (i) herritarren eskubideak; (ii) finantza akordio bakarra; (iii) EB uzteari buruzko beste gai batzuk.

Talde horiek ordezkari buruei informazioa emango diete negoziazio astean.

Horrez gain, bai Barnierren bai Davisen lankiderik hurbilenek (Olly Robins eta Sabine Weyand) Irlandari buruzko elkarriketa bati ekingo ziotela erabaki zen. Ostiral Santuko Akordioak babestea eta Bidaia Eremu Komuna mantentzea gai urgenteenak dira.

Negoizazio taldeen asmoa herritarren eskubideei, finantza akordio bakarrari eta mugen gaiari (bereziki Irlanda) buruzko adostasuna lehenbailehen lortzea da.

Negoizazioak nola doazen, Europar Kontseiluak hurrengo fasera igarotzeko nahikoa aurreratu den deklaratu du.

E. Batuaren ordezkari buruak negoziazioaren aurrerapenez E. Batuko beste alderdi politikoetako ordezkariak egunean edukiko dituela adierazi zuen. Halaber, maiz joango da britainiar parlamentura.